

---

1907-GARRÉN URTEKO UZTAREN 28-AN

---

## ALFONSO MARIA ZAVALA

Hernaniko Bikario jaunak,

Elgoibarko Euskal-festetan irakorri zituan euskal-jolasak

---

Nere adiskideak erregutu diratelako, eta nere adiskide maiteen erre-guak neretzat aginteak diralako, moldakaitz badere, itz labur batzuek esatera noa. Leenez, ondo azia bezela, batzarre onetan arkitzen diran giza-nobleai eta guri entzutera etorri diran euskal-erriko dama apañai agurrik errespetagarriena egiten diet.

Ni eserleku onetatik jaikitzean, zuetako askori zer gogora etorriko zayon badakit: Esango dezute: Entzun deguna baño gayago, entzun deguna baño geyago, entzun deguna baño obekiago, ernaniko vikarioak, ¿zer esan dezaiguke? Eta milla arrazoy daukazute orrela gogoratzean. Benepeñ, itz egin duan jaun beneragarri, eta euskal-errian arki litekean itzdun bikañen orri aurrez artu banio..... ¿Ordea oraiñ zer esan, baldin onek, gai onetan esan ditekeana esan badu?

Ez dakit esaera bat erderaz entzun izan ote dezuten: «Lenengo jotzen duanak, bi aldiz jotzen duala». Bestela, norbaitekin asarretuta, baiezean egon gabe, eman zayozute lenengo bikañekoa, eta ekusiko dezue, nola iñork gezurtatzen ez diran, lenengo jotzen duanak, bi aldiz jotzen duda; beti artzekoa obe da zorra baño. Ona guchi gora bera

neri gertatzen zaidana. Onek emandu lenengo kolpea, eta ni ordekoa biurtzeko ayenatua bezela gelditu naiz.

Gaiari banagoka batetik eta itzkuntzari bestetik, baderitzat gaia ona eta egokia izan bada, itzkuntza gañenekoa eta ohea izan dala; eta ezaitezte miretsi: Tolosako Vicario Jauna bezela guchi ditezke euskeraz mintza: oraiñ arte iñork esan ez badio, nik diotsat, euskal-erriko itzkuntzmai-sua dala.

Zen ere dan gaitz eta kontuz erabili bear dan gaya, anbateta aisa, leun, meé ondotsu eta bere esku arteko gauza bezela adierazi du bere gogoa.

Ain leun eta eztitu mintzatzea gure euskerari diozun naitasunetik datorkizu, eta orrezaz gañera Jainkoak emanikako doya dezu.

Eztarazkio mingañari barrenari daraizkiona baizik, eta barrenean nola, mingañean ala daraozkizu.

Euskaldun askoren ichumea aundia eta arrigarria da: zenbaitek uste dute euskal itzkuntza abarkudunen, achurlarien eta basa-gizonen itzkuntz dongea dala, eta aberats eta ondo azien eche eta pamilietatik deserritu bear litzekeana: orra nolako estimazioa dioten askok beren guraso zarren itzkuntzari; oek baño iraozgarri irmoagorik gure euskara maiteak ez baleuka, onuzkero lurra jo zuan, jo duan baño geyago; nik ez dakit nola dirauen ere; ichasoko бага asarratuak, ichasertzeko arrokari kolpeka darasten bezela, onela daraste euskararen etsayak euren ama euskerari, ordea arrokari bagak eraso arren, beti gogor dagoan bezela, onela esan liteke euskarak erantzuten diela bere zori gaiztoko etzayai: «jo, jo; baña alperrik; zuen jo-al guztiak gatik, gure mendietako arkaitz gogorrek bezela naiz, eta euskal-erriko mendiak dirauten arte, nik ere irango det.»

Beste zenbaiten iritzia da gure euskara gai ez dala, ezti-ezti eta gozogo gauza aundi, meé eta gora diranak adierazteko; orra bertan nola gezurtatu dezun, Lagun beneragarria, oek darastena. ¿Zer diteke gauza aundiagorik, meéagorik, goituagorik zuk gaur mingañean eta eskuartean erabili dezun gaya bezelakorik, ala ere argi eta garbi sallari ekin eta bukatu dezu.

Esan biezat nork nai zure euskera galai orrek zer zor diou beste or dabiltzan izkundeén naspillari. ¿Esan begit zuk adierazi dezun gai ori obeto, ederkiago, gozoroago adierazi ditekean? Naita ere, artu dezun gaiaz itz egiteko, euskera dezin itzkuntz samurragorik, eztiagorik gozoagorik ezin arkitu zendukean; gaur euskararen alde egin dezun

itzaldian, euskalitzkuntzaren lorategian bildutako lora sortarik ekusgarriena agertu dezun.

Eta egin dezuna egiteko, eta itz egin dezuna itz egiteko, gaur sortu zaigun eskola berrietan, itz berrien billa ibilli etzera. Euskal-errian, euskaldun onak itz egiten duten bezela itz egin dezun, guk dakigun itzkuntzan, gure erriko itzkuntzan, gure guraso zarren itzkuntzan, guk bularrarekin batera edoski genduen itzkuntz galayean itz egin dezun.

Deritzat, euskaldunak ez gendukeala auzian ibilli bear, leyatuz euskal-itx obeak nor diran; onetan ere, beste gauza askotan bezela alkartuak egon bear genduke, alkartzean eta bat egitean euskaldunen zorriona dagoalako. Itseka guchi, panparrokeri eta arrokeri guchiago, eta ikasi, kontuz, ziñez eta gogoz gure guraso zarren euskal-jolasak. Euskararen alde lan egiten badegu, garaia danean irtengo da, sortuko da euskal-itxdun jankintsuen artetik tribunal, ekadoy edo akademi bat (eta barkatu erderazko itz oek) gure auzi eta iskanbilla guziak erabakiko dituana, eta bitartean artu gure maisutzat Aita Larramendi, Mendi-buru, Axular, Astarloa, Iriarte, eta gaurko egunetan Aita Arana, Manteola, gure buruzari prestu Arturo Kampion jauna, Azkue, Echegaraiko Karmelo, Orkaiztegiko Patrizio, Tolosako vikario beneragarria era beste zenbait onelako, eta maisu oen argiarekin utsik egingo ez degu, eta auziak aldegrigo dute.

Neregan danez ille izpi bat aña ez dijoakit neri esan dezatela mintzoa esan dezatela berbea esan dezatela izketa; ez dijoakit neri, eta ez naiz asarretuko naiz diotela barre, naiz irri, naiz farre; ez dijoakit neri naiz diotsatela euzko naiz euskaldun, naiz euzkotarra, naiz euskalduna; itz oetatik euskal-itx obeak nor diran ni ez naiz leyatuko, baditezke denak euskal mintzoak izen: ona goierriko leku batean nola dioten bai batera eta bai bestera: irritz zeok, parrez zeok, kanpantorreko belarra jateko pozez zeok».

Doñua ere itzketako moduan erri batetik bestera aldatzen da, ordea euskera eta euslialdunak salatzeke, eta euskerari eta euskaldunai kargurik artzeke arrazoirik nik onetan arkitzen ez det. Ona berrizere argibide bat nere esanaren alde. Lenengo aldiz euskal-erriatik kinto edo soldaduak eraman zituztenean, Zegamako emakume batek lagundu zion bere semeari ez dakit Tolosara edo Donostiraño, eta bere semea soldadu bezerametela ekustean, ama doakabeak, negarrari emanaz, onela itz egin zuan: Ok, gizajoók, aiten da amen semeék, ayuntamiento eta diputaziok librautako ok? ¿soldadu eaman beardituzue ok? ¡A! egie

da bai, soldadue, aman seme sobradue.» **Zoazkit orain Ondarrabira eta emengo doñu abeste modutakoa da.** Ekusisia, **esaten dute:** ¿ekusisia Ondarrabiko plazan karramarrua dantzan?» **Irundar batek esango dizu:** «Emakumia, arrazu chokoltia.» **Eta Lapurditar batek:** Fin gaitz eginenduk choria, baldiñ gaztedandik ezbadakit kabia. **Eta azkenik bizkaitar batek:** «Begijen aurrean dakusku Junkoak imiñi euskuzen zeru ederrak, eta ez deutse gichi erakusiko aztertu gura ditubenari.» **¿Ez dakusazute bada ausardi aundia litzekeala molde batera, doñu batera, era batera gure euskara biurtu naya? Lorategi bat ainbat da galayago, zenbat eta loreak diran geyago, oparotsuago, ugariago, banaitakia-go. Euskararen galaitasuna dago bada, berezi itz egitean, doñuan, oparotasunean, ugaritasunean, banaitakisunean; beraz bakoitza bere gogora, bere naiera, bere doñura mintza bedi, eta orrela galai, gozo, guri eta ezti mintzatuko da.**

**Baderitzat ordea nere itz motel, dougeak onuzkero gogaitu zaituztela, eta aitormen bat egiñaz bukatzera noa. Nere itzak enzutean zue-tako askori etorri zayo gogora Aita Larramendik, bere erlijjioko lagun Aita Mendibururi zuzendu zion eskutinskribua, eta neri entzun diraten itz asko Aita Larramendirenak direla, eta ez nereak: alase da izan ere; eta zerbait gauza on esan badet, nere azarokoa ez da, ez bada besteren salletik, ereiñ bageko sorotik bildua.**

**Nere ondoren itz egingo dizue gaztelaniz, Euskal-esnalearen buruzari diña dan Arturo Kanpion jaunak, eta gero eztiro eta euskal donario ederrean, nere adiskide maite Azelaingo nagusi presta Larreta-ko Juan Bautistak: nik egindako utsuneak betetzeko gai diranak, eta ez naiz isilduko eta ez naiz jarriko esan gabe deaderrez: bizi bedi euskaldun egiazkoen anziñazko euskera, bizi bitez euskaldunak, eta onera gu onratzera etorri diran euskal-errikodama galai-nobleak, eta bizi bitez Elgoibargo alkate prestu eta euskal-erriaren buru diran diputadu argidotarrak.—Esan det.**

